



Eguesibarko Udala, 2019



2020ko iraila



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. EGUESIBARKO UDALA	4
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	6
IV. IRITZIA	7
IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia	8
IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia	8
V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	9
V.1 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria	9
V.2. Aurrekontu-emaitza	10
V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.....	10
V.4. Balantzea	11
V.5. Eraitzen kontua	12
VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	13
VI.1. Aurrekontu orokorra	13
VI.2 Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2019ko abenduaren 31n	14
VI.3 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea	15
VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena	16
VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak	17
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	32
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA	34





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2020rako jarduketa-programari jarraituz, Eguesibarko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean, udalaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruzko iritzi finantzarioa eta legezketasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarren atalean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Azterketa lana 2020ko apiriletik 2020ko ekainera bitartean egin du auditoretzako lau teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa horren emaitzak Eguesibarko Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaizkien, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakolari jarraituz.

Emandako epean, Eguesibarko Udaleko alkateak aurkeztu ditu alegazioak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei eta Andacelay SL udalaren enpresa publikoko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.





II. Eguesibarko Udala


Eguesibarkoa udal konposatu bat da, Iruñerrian dagoena. 2019ko urtarrilaren lean, zuzenbideko 21.128 biztanle zituen, eta 53,5 km²-ko azalera. Udalerria honako hauek osatzen dute: Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagaseta kontzejuek eta Etxalatz, Egulbati, Erantsus, Gorraitz, Sarriguren eta Ustarrozko herriguneeak.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari-tza politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Bartzarra eta Alkatetza.

2019an, Udalaren egitura administratiboa 13 alorrek osatzen dute, Alkatetza barne.

Udalak Andacelay SL merkataritza-sozietatea sortu zuen 2004an, hirigintza-sustapenerako. 2016an, helburu soziala zabaldu zen, eta hainbat zerbitzu publikoren kudeaketa sartu zen; besteak beste, haur-eskolen kudeaketa eta udal-eraikinen garbiketa-zerbitzua.

Grafikoki, honako hau da egitura indarduna:



Udalaren eta haren menpeko entearen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2019ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2019-12-31n
Udala	14.595.647	14.770.534	119
Guztira	14.595.647	14.770.534	119





- Merkataritza-sozietateak.

Sozietate publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2019-12-31n
Andacelay SL	1.750.771	1.750.672	99	84

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoa eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Haren alde aitortutako gastua 296.585 eurokoa izan da 2019an.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa		Mankomunitatea
	Udala	Enpresa publikoa	Zerbitzu-emakidarako kontratua	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	x				
Hilerria	x				
Hiri-hondakinen bilketa eta tratamendua					x
Kale-garbiketa	x				
Uraren ziklo integrala					x
Estolderia	x				
Parke publikoa	x			x	
Liburutegia-ludoteka	x				
Gizarte zerbitzuak	x	x			
Kirol instalazioak			x		
Bidaiarientzako hiribarruko garraio kolektiboa.				x	x
Hirigintza	x	x			
Udaltzaingoa	x				
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	x				
Ikastetxe publikoak mantentzea	x				
Berdintasunaren sustapena	x				
Turismo-jardueraren sustapena	x				
0-3 urtekoen ikastetxea	x	x			

2019an Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.





III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Udalaren 2019ko ekitaldiko finantzei eta legezketasun-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2019ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea 2019ko ekitaldian Udalak eta menpeko enteak egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- Ea 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2019rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren norainokoa Eguesibarko Udalaren 2019ko Kontu Orokorra da, zeinaren osagaiak, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako hauek baitira:

- Udalaren kontua:

- a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.

- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.

- c) Udalaren kontuaren eranskinak.

- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietatearen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2019ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legedia betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.





IV. Iritzia

Eguesibarko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2020ko uztailaren 2an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezarri behar ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea Kontu Orokorrean akats materialik ez egoteaz, eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortze aldera zenbatekoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguru-





barren araberako auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia

Auditoretza finantzarioko iritzia

Gure iritziz, erantsitako Kontu Orokorrak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du Udalaren 2019ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko eragiketen emaitza ekonomikoei eta aurrekontu-emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalak 141.674 euroko gastuak ordaindu ditu, isunak kudeatzeko kontratuaren gehieneko indarraldia gaindituta.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitatearen eraginarengatik ez bada, eta berrikusitako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2019ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.





V. Kontu Orokorraren laburpena

Ondoren Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

V.1 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuak, kapituluz kapitulu

GASTUAK	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	% Betetzea	% Ordainketak
1. Langileak	5.761.050	594.500	6.355.550	6.169.035	5.972.182	97	97
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	2.962.350	129.965	3.092.315	2.699.973	2.360.380	87	87
3. Finantza-gastuak	500	0	500	0	0	0	0
4. Transferentzia arruntak	3.100.300	-37.100	3.063.200	2.765.201	2.455.409	90	89
6. Inbertsioak	1.703.500	6.124.119	7.827.619	2.929.979	2.836.545	37	97
7. Kapital-transferentziak	77.500	20.000	97.500	14.622	10.901	15	75
9. Pasibo finantzarioak	191.750	0	191.750	191.723	191.723	100	100
Guztira	13.796.950	6.831.484	20.628.434	14.770.533	13.827.140	72	94

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	% Betetzea	% Kobrantzak
1. Zuzeneko zergak	4.270.100	0	4.270.100	4.848.583	4.390.246	114	91
2. Zeharkako zergak	520.000	123.000	643.000	867.048	823.117	135	95
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.628.750	0	1.628.750	1.785.210	1.600.830	110	90
4. Transferentzia arruntak	5.492.900	0	5.492.900	5.616.877	5.615.608	102	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	948.200	1.179.500	2.127.700	1.071.117	97.645	50	9
6. Inbertsio errealak besterentzea	102.000	0	102.000	23.521	23.521	23	100
7. Kapital-transferentziak	835.000	397.000	1.232.000	383.292	353.353	31	92
8. Aktibo finantzarioak	0	5.131.983	5.131.983	0	0	0	-
Guztira	13.796.950	6.831.483	20.628.433	14.595.647	12.904.321	71	88





V.2. Aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2018*	2019
Aitortutako eskubide garbiak	13.861.215	14.595.647
Aitorturiko betebeharrak	13.690.776	14.770.533
Aurrekontu-emaitza	170.439	-174.886
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	250.000
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	911.298	0
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	962.186	1.324.568
Aurrekontu-emaitza doituak	2.043.923	899.682

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2018*	2019	% Aldea
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	358.267	1.292.704	261
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	758.634	1.691.099	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.877.142	2.126.842	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	123.144	170.576	
(+) Ordainketen itzulketak	3.046	3.950	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	2.396.621	2.689.900	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	7.078	9.863	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.701.320	1.674.858	-2
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.140.849	943.394	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	39.277	55.450	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	520.764	675.813	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	429	202	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	0	0	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	6.867.959	5.423.227	-21
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	
Diruzaintzako gerakina, guztira	5.524.906	5.041.072	-9
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	250.000	
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0	
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako	5.524.906	4.791.072	-13

* Auditatu gabeko ekitaldia





V.4. Balantzea

AKTIBOA			PASIBOA		
	2018*	2019		2018*	2019
A Ibilgetua	72.078.889	72.816.717	A Funts berekiak	78.418.698	79.157.694
1 Ibilgetu materiala	70.716.284	71.391.212	1 Ondarea eta erreserbak	65.741.379	72.027.957
2 Ibilgetu ez-materiala	404.319	399.986	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekin)	6.521.403	590.529
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0	3 Kapitaleko dirulaguntzak	6.155.916	6.539.208
4 Herri-ondasunak	950.685	1.017.919	B Arriskueterako eta gastueterako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	7.601	7.601	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	1.581.717	1.389.994
6 Kitatu beharreko gastuak	0	0	5 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	1.581.717	1.389.994
C Zirkulatzailea	9.629.925	9.415.693	D Epe laburreko hartzekodunak	1.708.398	1.684.722
7 Izakinak	0	0	6 Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.701.320	1.674.858
8 Zordunak	2.761.966	3.992.467	7 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	7.078	9.863
9 Kontu finantzarioak	6.867.959	5.423.227			
10 Finantzetaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak, aplikatzeko daudenak	0	0			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0			
Aktiboa, guztira	81.708.813	82.232.410	Pasiboa, guztira	81.708.813	82.232.410

* Auditatu gabeko ekitaldia





V.5. Eraitzen kontua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2018*	2019	Hartzeko	2018*	2019
61 Langile-gastuak	5.440.627	6.243.401	70 Salmentak	1.455.173	1.433.934
62 Finantza-gastuak	15	0	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	681.181	1.355.038
63 Tributuak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	4.845.001	4.286.360
64 Kanpo zerbitzuak, hornidurak eta lanak	2.566.638	2.625.607	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	880.241	921.988
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	9.064	9.535
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.121.905	5.607.342
67 Transferentzia arruntak	2.740.130	2.765.201	77 Kapitalaren gaineko zergak	287.570	507.283
68 Kapital-transferentziak	39.044	14.622	78 Bestelako diru-sarrerak	233.217	67.355
69 Amortizazio eta hornidurarako zuzkidura	1.803.007	1.934.392	79 Beren xederako aplikatutako hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta	923.891	605.611	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	13.513.352	14.188.835	Guztira	13.513.352	14.188.835

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2018*	2019	Deskribapena	2018*	2019
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	923.891	605.611
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	552.177	1.171
84 Itxitako aurrekontuetako eskubideen eta betebeharren aldaketak	23.966	16.253	84 Itxitako aurrekontuetako eskubideen eta betebeharren aldaketak	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.452.101	590.529	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.476.068	606.782	Guztira	1.476.068	606.782

* Auditatu gabeko ekitaldia





VI. Konklusioak eta gomendioak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenari buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren eta haren mendeko entitateen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. Aurrekontu orokorra

Udalaren 2019rako hasierako aurrekontuak 13,80 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak jasotzen zituen, hurrenez hurren.

6,83 milioi euroko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 50 egiten dute—, behin betiko aurreikuspenak 20,63 milioi eurokoak izan ziren. Aldaketen zenbateko osoaren ehuneko 90 inbertsio errealean 6. kapitulari dagokio.

Aurrekontu-likidazioa

2019an, gastuak 14,77 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 72ko betetze-maila izan dute. Gastu horiek 2018koak baino ehuneko zortzi handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2019an 14,6 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 71ko betetze-mailarekin. Aurreko urtearekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko bost izan dira.

Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	42	Tributu bidezko diru-sarrerak	43
Bestelako gastu arruntak	37	Transferentziak	41
Inbertsio errealak	20	Ondare bidezko diru-sarrerak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	16
Pasibo finantzarioak	1		

Gastu arruntek gastu guztien ehuneko 79 egiten dute. Horietatik, langile-gastuak gastatutako guztiaren ehuneko 42 dira, inbertsioak ehuneko hogeitun, eta gainerako ehuneko bat pasibo finantzarioei dagokie.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 43 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 41. Gainerako ehuneko 16tik, portzentajerik handiena prezio publikoei eta bestelako diru-sarrerei dagokie, diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko bederatzi baitira.





Ondoren, 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

Adierazleak	2018	2019	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	13.861.215	14.595.647	5
Aitortutako betebeharrak, guztira	13.690.776	14.770.534	8
Diru-sarrera arruntak	13.340.243	14.188.835	6
Funtzionamendu-gastuak	10.747.395	11.634.209	8
Kapitaleko diru-sarrerak	520.972	406.813	-22
Kapitaleko gastuak	2.799.574	2.944.601	5
Saldo ez-finantzarioa	314.231	16.837	-95
Aurrekontu-emaiza doituak	2.043.922	899.682	-56

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrera arruntak ehuneko sei igo dira; kapitalekoak, berriz, ehuneko 22 jaitsi dira. Dena den, termino absolutuetan, nabarmenagoa izan da diru-sarrera arruntan gorakada (848.592 euro) kapitaleko diru-sarreraren beherakadaren aldean (114.159 euro).

- Funtzionamendu-gastuek eta kapital-gastuek ehuneko zortzi eta bost egin dute gora, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, gehikuntza 886.814 eta 145.027 eurokoa izan da.

- Aurrekontu-emaiza doituak ehuneko 56ko jaitsiera izan du 2018koaren aldean. Termino absolutuetan, beheratzea 1,14 milioi eurokoa izan da.

VI.2 Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2019ko abenduaren 31n

Hurrengo taulan, 2019ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk erakusten ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Adierazleak	2018	2019	Aldea (%)
Aurrezki gordina	2.592.848	2.554.625	-1,5
Finantza-zama	143.807	191.723	33,3
Aurrezki garbia	2.449.041	2.362.902	-3,5
Finantza-zamaren adierazlea	% 1,08	% 1,35	25,3
Aurrezki gordinek diru-sarrera arruntan gainean zenbat egiten duten (%)	19	18	-7,4
Zor bizia	1.581.717	1.389.994	-12,1
Zorpetze-maila	% 12	% 10	-17,4
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	5.524.906	4.791.072	-13,3
Autonomia fiskala (tributuak/ aitortutako eskubide garbiak)	% 58	% 51	-10,7
Kobrantza zalantzarriko zordunen adierazlea	% 91	% 70	-22,5

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:





2019an, aurrezki garbia 2,4 milioikoa izan zen, eta finantza-karga 191.723 eurokoa. Udalak funtzionamendu-gastuei eta finantza-kargari aurre egiteko nahikoa baliabide sortu zituela adierazi du; azken hori ehuneko 33 handitu zen aurreko ekitaldiarekiko, 2019a baita Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDEA) mailegua amortizatzeke lehenengo urte osoa.

Zorpetze maila ehuneko hamarrekoa da, araudian ezarritako ehuneko 110eko muga baino askoz txikiagoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak % 13 egin du behera 2018ko datuekin alderatuta, 4,8 milioiko zenbateko positiboarekin.

Azken batean, udalaren finantza-egoera onbideratua da, aurrezki gordinaren eta garbiaren adierazle handiak ditu eta zorpetze-maila ehuneko hamarrekoa da. Era berean, doitutako emaitza eta diruzaintzako gerakina positiboak dira, nahiz eta aurreko ekitaldiarekiko murriztu diren.

VI.3 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionalerako SEC 2010 irizpideei jarraituta, honako ente hauek jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera eta merkatukoa ez den udal sozietatea, Andacelay SL.

Administrazio publikotzat jotzen diren erakundeek honako datu hauek dauzkate, Ganbera honek egindako doikuntzekin:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioa.

747.415 milioi euroko finantzaketa-beharra sortu dute.

Finantzaketaren gaitasuna/beharra

	2019
Diru-sarrera ez-finantzarioak	13.632.720
Gastu ez-finantzarioak	14.586.289
Saldo ez-finantzarioa	-953.569
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreren kobrantzak	-120.663
2015-2018 aldiko gradu-sortzapenaren gastuak	326.817
Finantzaketa-beharra	-747.415

Udalak haur-eskolan egindako inbertsioari dagokion 1,6 milioiko doikuntza positiboa egin du, beste administrazio batek egindako inbertsioa dela iritzita. Horrela, lortutako emaitza positiboa da, 852.897 euroko finantziario-ahalmena lortu baitu. Hala ere, uste dugu inbertsio horrek ez dituela betetzen doikuntza hori aplikatzeko behar diren baldintzak, eta, ondorioz, 747.415 euro finantzatu behar direla.





- Gastuaren araua.

2019ko ekitaldiko gastu konputagarria 570.704 euroko gehieneko gastu-muga baino handiagoa da, eta ez da bete gastu-araua, 2019rako baimendutako ehuneko 2,7ko aldaketa-tasa gainditu baita.

Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2019
2018ko gastu konputagarri bateratua	10.972.096
% 2,7ko igoera	296.247
Diru-bilketaren igoera iraunkorrak	53.891
2019rako aurreikusitako gastu-muga	11.322.234
2019ko gastu konputagarri bateratua	11.892.937
2019ko gastuan izandako desbideratzea	-570.704

Udalak egindako kalkuluen gainean bi doikuntza egin ditugu; alde batetik, ez dugu diru-bilketaren gehikuntza iraunkortzat hartzen Toki Ogasunen Funtzaren igoera, eta, bestetik, 2018an lortutako superabitaren muga finantza-inbertsio jasangarritzat jotzen dugu, eta ez haur-eskolan egindako inbertsio osoa.

Gastu-arauaren eta aurrekontu-egonkortasunaren urratze horrek beharrezko egiten du 2020-2021 ekitaldietarako plan ekonomiko finantzario bat onestea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak ezartzen duen bezala.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa:

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, helburu hori betetzen da, ehuneko hamarreko zorra baitu, araudiak ezarritako ehuneko 110eko muga baino askoz txikiagoa.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

	Egunak
Lehenengo hiruhilekoa	23,35
Bigarren hiruhilekoa	13,34
Hirugarren hiruhilekoa	19,58
Laugarren hiruhilekoa	18,52

(*) Ogasun Ministerioan argitaraturiko datuak

2020-2021 ekitaldietarako plan ekonomiko-finantzarioa egitea gomendatzen dugu, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiak ezarritakoa.

VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena

VI. atal honetako apartatu ezberdinetan errepikatzen den bezala, honako gomendio hauek oraindik ere ezarkizun diraute:





- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Udal plan bat egitea, egun indarrean dagoena, 1999koa, ordeztuko.*

VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak

VI.5.1. Alderdi orokorrak

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra onetsi zuen 2018ko azaroaren 28an. Behin betiko onespena 2019ko urtarrilaren 15eko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, hemendik aurrera) argitaratu zen.

Udalaren 2019ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2020ko otsailaren 25eko ebazpen batez onetsi zen.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Andacelay SLren 2019. urteko kontuak kanpoko profesionalak auditatuak daude. Finantza-auditoretzako txosten horrek aldeko iritzia dauka.
- Aurrekontu-aldaketa bat izapidetu da, aurreikusitakoak baino diru-sarrera handiagoekin finantzatua, finantzaketa hori benetan bildu gabe.
- Kontu-hartzaitzak ez du eragozpen-oharrik egin 2019an.
- Udal-inbentarioa onetsita dauka Udalak, eta inbentario horretan bereizita agertzen da Udalaren Lurzoru Ondarea. Egiaztatu dugu bai balantzearen ibilgetua bai inbentarioa eguneratuta daudela eta udalak behar bezala kontrolatzen dituela.

Udalaren aholkulari juridikoak emandako txostenaren arabera, 2019ko itxieran zortzi auzi daude ebazteke. Horiek izan ditzaketen ondorio ekonomikoen batura 127.681 eurokoa da.

Aurrekontu-aldaketak onartzeko araudian ezarritako baldintzak betetzea gomendatzen dugu.





VI.5.2. Langile-gastuak

Langile-gastuak 6,17 milioi eurokoak izan ziren, alegia, behin betiko kredituen ehuneko 97. Ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 42 dira, eta ehuneko 15 igo ziren aurreko ekitaldiarekiko, batez ere administrazioko langile kontratatuei gardua aitortzearen ondorioz, 2015eko atzeraeraginezko ondorioekin.

Aurreko ekitaldikoekiko alderatzea ondoko taulan azaltzen dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2018	Aitortutako betebeharrak, 2019	Aldea (%)
Hautetsien lansariak	125.428	104.009	-17
Behin-behineko langileen ordainsariak	58.073	57.519	-1
Funtzionarioen oinarrizko lansariak	2.065.876	2.655.687	29
Funtzionarioen lansari osagarriak	797.863	884.061	11
Praktiketako funtzionarioen lansariak	35.318	0	-100
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	59.728	88.133	48
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	553.298	470.653	-15
Bestelako langileak	66	0	-100
Kuota sozialak	1.587.249	1.802.734	14
Langile-gastu sozialak	55.195	54.423	-1
Familiaren osagarria	48.820	51.816	6
Guztira	5.386.914	6.169.035	15

Funtzionarioen eta administrazio-kontratudunen oinarrizko ordainsariak eta gizarte-kuotak % 29 eta % 14 igo dira, hurrenez hurren, 2018. urtearekin alderatuta. Termino absolutuetan 805.298 euroko igoera izan dute. Hautetsien ordainsariak % 17 jaitsi dira 2018. urtearekin alderatuta, eta aldi baterako lan-kontratudun langileen ordainsariak % 15.

2019ko abenduaren 31n, udalak honako lanpostu hauek zituen:

Sailkapena	2019
Behin-behineko langileak	1
Langile funtzionarioak	54
Lan-kontratudun langileak	65
Guztira	120

Plantillako 120 lanpostuetatik, ehuneko 54 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 45 funtzionarioen araubidekoak.





Honako hau da lanpostuen egoera:

	2019
Plantillako langileak	120
Lanpostu beteak	53
Lanpostu hutsak	67
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	56
Betetako lanpostu hutsak	60
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	90
Bete gabeko lanpostu hutsak	7
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	10

2019an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 56 hutsik daude; horietatik, ehuneko 90 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko hamarrek, bete gabe jarraitzen dute.

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2019ko plantilla organikoaren behin betiko onespena 2019ko apirila argitaratu zen NAOn, alegazioen izapidea amaitu ondoren. Ekitaldian zehar, aldaketa bakarra egin da plantilla organikoan, landazain lanpostua sortzeko.

Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda alderatzean, zenbait akats hauteman dira, 2020ko plantillan zuzendu beharko direnak.

- 2018ko azaroan argitaratu zen 2018-2022 urteetarako onartutako lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean, LEP). Lan-eskaintza publiko horretan 45 lanpostu daude guztira, eta horietako lau barne-sustapenaren bidez beteko dira. LEPeant sartutako lanpostu guztiak Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legearen araudiak¹ baimendutako aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gehigarriaren babespean sartzen dira.

Egiaztatu dugunez, LEPeant sartutako lanpostuak enplegu-egonkortzerako eskainiak izateko moduko antzintasun-betekizunak betetzen zitezten.

2017an ez zen behin betiko bazarik izan eta, beraz, ezin zen birjartze-tasagatiko eskaintzarik egin.

2018an ez zen LEPeant aurreikusitako bost lanpostuetako bakar bat ere deitu. 2019. urtearen amaieran, LEPeant egoera honako hau zen:

LEPeant egoera 2019-12-31n	Kopurua
Eskaintako lanpostuak (barne sustapeneko lau barne)	45
Deituriko lanpostuak	9
Deitutako eta atzera egindako lanpostuak (hizkuntza-eskakizunaren azterketa eta proben eta merezimenduen egokitasuna)	4
Egindako izendapenak	4
Deialdia egiteko dauden lanpostuak	40

¹ 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikulua.





2019an egindako deialdietako bat berrikusi dugu, eta izapide guztiak zuzenak dira.

- 2019an, bi epai eman zituzten Lan Arloko bigarren Epaitegiak eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak. Epai horien bidez, langile mugagabe ez-finko deklarazten ziren aldi baterako hainbat lan-kontratu izan zituzten bi langile, eta, ondoren, administrazio-kontratu bat egin zitzairen. Bi kasuetan, epaiek jasotzen dute administrazio-kontratuaren aurreko lan-kontratuak iruzurrezkoak zirela, ez baitzioten behar iragankor edo aldi baterako bati erantzuten.

- 2019an, Eguesibarko Udalak administrazioko langile kontratatuen gradua ordaindu du, langileek eskaera egin zutenetik lau urteko atzeraeraginarekin. 54 langileri 309.769 euro ordaindu zaizkie.

54 jasotzaileetatik 21i ordaindutako zenbatekoak berrikusi ditugu, zenbateko osoaren ehuneko 65era iristen baitira, hau da, 201.199 eurora. Oro har, ordaindutako zenbatekoak zuzenak dira.

- Langileek (bajan egon diren pertsonak izan ezik) 2019ko abenduko nominan jasotako zenbatekoa berrikusi dugu. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	137.139
Lanpostu-osagarria:	21.157
Mailako osagarria	10.587
Berariazko osagarria	5.516
Bateraezintasuneko osagarria	3.255
Arrisku bereziko osagarria	2.843
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	1.859
Zuzendaritza postuko osagarria	1.526
Dedikazio eskusiboko osagarria	1.057
Txandakako lanaldiaren osagarria	350
Abendua, guztira	185.288

Oro har, udaleko langileen ordainsariak bat datoz plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusten diren mailaren oinarrizko soldatarekin eta osagarrieekin.

Nominaren barne kontrola.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ez dela beti nominaren kontrol egokia egiten. Bi kasutan, administrazio-kontratua zuten langileek hirurtekoak jasotzen zituzten; beste bi kasutan, lanpostu berari esleitutako bi pertsona zeuden; kasu batean, langileak okupaturako lanpostuari ez zegokion osagarri bat jasotzen





zuen; kasu batean, ez zegoen jasota kontratua aldatu zenik, pertsona bati lanaldia luzatuz; eta, bestean, ez dago jasota musika-eskolako zuzendaritza-kargu bat izendatzeko ebazpena.

Era berean, ezin izan dugu egiaztatu Udaltzaingoaren jaiegunetako ordainsari aldakorren zuzentasuna, 112.520 eurokoak, ez baita bidaltzen aurrez aurreko kontrolleko hileko fitxategia udalera dagokion laburpen-orriarekin batera.

Hala ere, gure fiskalizazioa dela eta, dagozkion erregularizazioak egin dira.

Gure gomendioak:

- *Lan-erregimeneko kontratazioak egitea, soilik araudian aurreikusitako kasuetan, eta langile mugagabe ez-finkoak hurrengo lan-eskaintza publikoan sartzea, langile horiek estaltzeko.*
- *Langileen arloko barne-kontrola indartzea, nominetan antzemandako akatsak gerta ez daitezen.*
- *Jardunbide egokiak ezartzea udal poliziako lanaldiaren kontrol eta jarraipenerako.*

VI.5.3. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 2,7 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 18 egiten dute, eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 87koa izan da.

2019ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko hiru egin zuten gora, xehakaturik jarraian azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2018	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2019	2019/2018 aldea (%)
Ibilgetu materialaren errentamenduak	20.539	12.931	-37
Ibilgetu materialaren konponketa, kontserbazioa eta mantentzea	364.867	332.550	-9
Inbentariatu ezin den materiala	33.802	41.007	21
Hornidurak eta telekomunikazioak	835.029	965.423	16
Aseguru-primak eta tributuoak	24.619	25.637	4
Protokoloko eta ordezkaritza-lanetako eginkizunak	10.836	10.650	-2
Beste enpresa batzuek egindako lanak	1.200.754	1.157.992	-4
Dietak, lekualdaketak eta bestelako ordainsariak	53.713	74.366	38
Administrazio publikoek, EEPek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek egindako lanak	76.192	79.418	4
Guztira	2.620.351	2.699.973	3

Gastuen lagin hau aztertu dugu: 2. kapituluko gastu guztien ehuneko 34.





Aurrekontuko partidak/zerbitzuak	Aitortutako betebeharrak, 2019
Energia elektrikoa eta gasa	329.215
Berdegunek mantentzea	197.980
Seinale bertikalak eta horizontalak	130.542
Isunak kobrantzaren kudeaketa	103.627
Informatika zerbitzuak	77.418
Jarduera ekonomikoa sustatzeko ekintzak	70.223

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta, onetsita, kontu hartuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Berdeguneak mantentzeko kontratuan ez da egiten administrazio klausula partikularren pleguan (aurrerantzean, AKPP) ezarritako exekuzio-baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzeke jarraipena.

- Isunak kudeatzeko zerbitzua aurreko adjudikaziodunak eman du 2019ko maiatzera arte, 2018ko uztailean aurreikusitako luzapen guztiak agortu baditu ere. 2019an enpresa horri 141.674 euroko gastua aitortu zaio.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

Ondoren aipatzen ditugun lizitazioak berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta urte horretako gastu-exekuzioa ere:

Kontratua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa*	Adjudikazioaren prezioa*	Beharpena (%)
Eguesibarrerako seinale bertikal eta horizontalak mantendu, hornitu eta instalatzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2	49.587	45.123	9
Argindarraren eta gasaren hornidura Esparru-akordioa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	6	371.250	371.250	0

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Oro har, kontratuen lizitazioak eta haien adjudikazioak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Kontratazio-mahaiak eratzeko ekitaldirik ez da egin.
- Seinale horizontalen eta bertikalen kontratuaren proposamen teknikoaren balorazioak hainbat konpromiso hartzen ditu barne, besteak beste, adjudikazio-hartzaileak seinaleen inbentarioa egitea eta eguneratzea, kontratua gauzatzean bete ez direnak. Ez dago jasota behar diren zigorrak ezarri direnik.
- Aurreko kontratuaren baldintza-agirian exekuzio-baldintza berezi batzuk ezarri dira, baina udalak ez du horien jarraipena egin geroago.
- Txosten hau egin bitartean, udalak errekerimendua bidali dio enpresari, ez-betetzeak zuzentzeko eta aipatutako egikaritze-baldintza bereziak justifikatzeko.





Gure gomendioak:

- *Kontratazio-mahaiak formalki eratzea.*
- *Eskaintza teknikoan jasotako konpromisoak bete ditzala eskatzea enpresari, eta dagozkion zigorrak ezartzea.*
- *Kontratua gauzatzeko baldintza-agirietan ezarritako baldintza bereziak benetan betetzen direla egiaztatzeke mekanismoak ezartzea.*
- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gainditzeko.*

VI.5.4. Inbertsioak

Udalak eginiko inbertsioek 2,93 milioi euro egin zuten. Ekitaldian aitortutako gastuen guztizkoaren ehuneko 20 egiten dute. Ehuneko 37 baino ez dira gauzatu, zenbateko handiko inbertsio batzuk ez direlako hasi, hala nola kiroldegi berria, kultur etxe berria, Sarrigurengo bidegorria eta Berrikuntzaren Hiriko pasabidea. Hasi gabeko inbertsio horiek 3,6 milioi euroko behin betiko aurreikuspena zuten.

Honako kontratu-lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Prozedura	Kopurua Lizitatuak	Lizitazioko prezioa*	Adjudikazioaren prezioa*	Beharapena (%)
Haur Eskola eraikitzea	Irekia, Europar Batasuneko atala-setik behera	8	1.582.536	1.458.236	8
Gorraizko espaloiak konpontzea	Irekia, Europar Batasuneko atala-setik behera	1	82.600	82.356	0,3
Sarriguren kiroldegiko estalkia iragazgaiztea	Irekia, Europar Batasuneko atala-setik behera	1	305.277	259.485	15

* BEZik gabeko zenbatekoak

Oro har, kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa legediaren arabera izapidetu dira. Gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude. Halere, zenbait gorabehera detektatu dira berrikusitako espedienteen izapidetzean; ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Ez dago jasota inbertsio plan egin denik.
- Gorraizko espaloiak konpontzeko obraren espedienteen ez dago jasota kontratazio-mahaiaren beharizan-txostenik, txosten juridikorik edo eraketa-aktarik. AK-PPak bi berme-epe ezartzen ditu, eta forma-akats horrek eragotzi egin du obraren entrega-atzerapenagatik zigorrak aplikatzea.





Balorazio ekonomikorako erabilitako formula ez da linealki proportzionala den formula matematiko baten bidez egin, baina ez du ondoriorik izan, lizitatzailerak berrak aurkeztu baitzen.

- Kiroldetia iragazgaitzeko obraren espedientean ez dago jasota lotetan banatu ez izanaren justifikaziorik, eta Mahaiaren akta guztiak ere ez daude jasota.

Obra gauzatzean, bi aldaketa egin dira, guztira 35.977 eurokoak, BEZa barne; adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 14 dira. Bigarren aldaketa kontratazio-organoak onartu du, ziurtagiria egin ondoren, dagokion espedientea izapidetu gabe. Ez da bermea doitu eta ez dira egindako aldaketak argitaratu.

Udaleko aparejadoreak jakinarazi du adjudikaziodunak ez duela bete berdintasunaren, segurtasunaren eta osasunaren babesaren arloko prestakuntza-konpromisoa. Tokiko gobernu-batzarrak AKPPan jasotako zigorrak ez ezartzea erabaki zuen, enpresak prestakuntza hori *a posteriori* emateko konpromisoa hartu zuelako.

- Haur-eskolaren obraren espedientean bi kontratu-aldaketa egin dira, guztira 77.758 eurokoak, BEZa barne, kontratazio-araudian ezarritako izapidea egin gabe.

Gure gomendioak:

- *Kontratazio-espedienteak kontratu-araudiak eskatzen duen dokumentazioarekin osatzea; hala nola, beharrezko txostena lotetan ez banatzearen justifikazioa, txosten juridikoa eta Kontratazio Mahaiaren aktak.*

- *Behin betiko bermea egokitzea kontratua aldatzen den kasuetan, eta horiek argitaratzea.*

- *Kontratu-aldaketak gertatzen badira, ezarritako izapidetzea betetzea, eta administrazio-klausula zehatzen agirietan ezarritako zigorrak eskatzea, haietan jasotako klausulak ez betetzeagatik.*

- *Inbertsio-plan bat onestea, plangintza egokia egin ahal izateko, bai eta haren jarraipena, kontrola eta ondorengo ebaluazioa ere.*

- *Pleguetan balorazio ekonomikorako formula linealki proportzionalak ezartzea.*





VI.5.5 Transferentzia-gastuak

2019an, udalak 2,7 milioi erabili zituen transferentziak egin eta dirulaguntzak emateko. Honako hauek izan ziren onuradunak:

	Transferentzia arruntak		Kapital-transferentziak	
	Aitortutako betebeharrak	2019/2018 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2019/2018 aldea (%)
Foru Komunitateko Administrazioa	22.655	0	0	0
Kontzejuak	58.434	-4	0	0
Mankomunitateak	296.585	4	0	0
Udalak	0	-100	14.622	4
Enpresa pribatuak	198.695	12	0	0
Toki entiateko ent. publikoak eta merkataritza-soz.	1.733.017	8	0	0
Familiak	79.058	-39	0	0
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	228.948	-6	0	0
Beste transferentzia batzuk	147.809	-34	0	0
Guztira	2.765.201	1	14.622	4

Transferentziek eta dirulaguntza arruntek 2,7 milioi euro egin zuten. 2019ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 19 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 90 da. Aurreko urtearen aldean, ehuneko bat egin dute gora.

Transferentziak eta kapitaleko dirulaguntzak 14.622 eurokoak izan ziren; horrek udalaren 2019ko betebeharrak aitortu guztien ehuneko 0,1 egin zuen. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko hiruko gorakada izan dute.

Transferentzien eta dirulaguntzen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2019)
0-3 urteko ikastegien kudeaketa-erabilerako transferentzia	1.003.795
Familiari arreta emateko zentroaren kudeaketa	388.279
Enplegua eta kooperatibismoa sustatzea	144.401
Udalaren kirol eskolentzako dirulaguntza	79.960
Udal talde politikoentzako dirulaguntza	41.158
Bizikleta elektrikoak erosteko laguntzak	10.658

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak ego-kiro onetsita, fiskalizatuta eta kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdi-en arabera; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Udalak ez dauka Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak edukitzera behartzen duen Dirulaguntza Plan Estrategikoa.





- Udal kirol-eskolei dirulaguntzak emateko deialdian, kasu batean, ordaindutako dirulaguntza justifikatutakoa baino handiagoa izan da, baina, gure fiskalizazioa dela-eta, dagokion itzulketa-espedientea izapidetu dute.

- Bi udal talderen kasuan, transferentziak titularitatea eta IFZ alderdi politiko baten izenean, eta ez udal taldearen izenean, dauzkaten banku-kontuetan sartu dira. Gaur egun, jasota dago udala izapide egokiak egiten ari dela egoera erregularizatzeke.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa onestea.*
- *Udal taldeei IFZ propioa egiaztatzeke eskatzea, dagokien alderdi edo koalizio politikotik bereizita eta independentea den banku-kontuarekin.*

VI.5.6 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2019an aitortutako eskubideek 7,5 milioi egin zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 51 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		% Betetzea	2019/2018 aldea (%)
	2018	2019		
Zuzeneko zergak	4.600.070	4.848.583	114	5
Zeharkako zergak	1.412.743	867.048	135	-39
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.965.744	1.785.210	110	-9

Zergak

Zergek Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 39 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	%, guztizkoaren gainean ehunekoa	2019/2018 aldea (%)
Zuzeneko zergak			
Lurraren kontribuzioa	3.098.422	21	0
Zirkulazio zerga	921.881	6	5
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	507.283	3	76
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	320.890	2	-3
Zeharkako zergak			
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	867.048	6	-39

Eskubide aitortuetatik zenbateko handienekoak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio (3,1 milioi euro), eta ez dago aldaketarik aurreko ekitaldiarekin alderatuta.





Bereziki aipagarriak dira honako alderdi hauek:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga % 76 igo da 2018. urtekoarekin alderatuta. Izan ere, 2019an kuota positiboarekin likidatutako 126 espedienteetatik, kontu-hartzailetzaren txostenaren arabera, zazpik baino ez dituzte guztira 367.607 euro, aitortutako eskubide guztien ehuneko 72. Likidazio aipagarrienak Erripagañari dagozkionak dira.

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (aurrerantzean EIOZ) ehuneko 39 jaitsi da aurreko ekitaldiarekiko. Alde horren arrazoia da 2018an obra handiko bi espediente garrantzitsu egon zirela, eta espediente horien likidazioak 1,14 milioiokak izan zirela.

Udalak aplikatutako zerga-tasak, JEZa izan ezik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertain-altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributu-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,22	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	22,5	8 - 25
Eraikinak, instalazioak eta obrak	4,5 - 4,8	2-5

2019an indarrean zegoen balioespen-ponentzia urriaren 25eko 62/2016 Ebazpenaren bidez onetsi zuen Lurralde Aberastasuneko Zerbitzuak.

Tributuen Kontrolerako Plana berrikusi dugu, bai eta diru-sarreraren partida hauei buruzko lagin bat ere:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak (%)	2019/2018 aldea (%)
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	507.283	63	76
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	867.048	95	-39

2017ko azaroan, Alkatetzaren dekretu baten bidez, 2017-2019rako Tributuen Kontrolerako Udal Plana onetsi zen. Abenduan NAO n argitaratu ziren plan horren irizpide orokorrak. Egiaztatu dugu 2019an ez dela jarduketarik egin, Ogasun Arloak jakinarazi digunez, 2018an hasitako agentzia exekutiboaren zerbitzua kontratatzekeo prozesuak eta dagokion zor-migrazioak ekarri dien aparteko lan-kargagatik.

Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, berrikusitako zergen likidazioa eta diru-bilketa ordenantzei eta kasuko araei jarraituz egin direla.

2020rako onartutako eta luzatutako Tributuen Kontrolerako Udal Planean jasotako jarduerak gauzatzea gomendatzen dugu.



*Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.*

Tasek, prezio publikoek eta beste diru-sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 12 egin zuten, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Aitortutako eskubide garbiak	Aldea (%) 2019/2018
Tasak eta prezio publikoak	1.369.658	9	1
Bestelako diru-sarrerak	415.552	3	-31

Hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldea (%) 2019/2018
Musika-eskolako ikasleen ekarpenak	333.406	4
Trafiko isunak	255.903	-38
Hornikuntza-enpresen tasak	204.068	-4
Premiamendu-errekarguak	44.621	-44
Beste zehapen batzuk	34.342	-

Trafiko-isunengatik eta premiamendu-errekarguengatik aitortutako eskubideak % 38 eta % 44 murriztu dira, hurrenez hurren, 2019an isunak kudeatzeko jarduerak eta nahitaezko diru-bilketak urteko lehen bost hilabeteetan bakarrik funtzionatu dutelako normaltasunez. Bigarren seihilekotik aurrera, enpresa adjudikazio-hartzailea aldatzeak eragindako zailtasunen ondorioz, espedienteen izapidetzea ia geldirik egon da.

Gainera, trafiko-isunei dagokienez, abiadura detektatzeko aparatuetan bi matxura izan dira, eta, ondorioz, ezarritako isunak murriztu egin dira.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Udala Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzarekin tasa eta prezio publikoak ezartzeko egiten ari den kostuen azterketa oraindik ez da amaitu, nahiz eta datuen kargan aurrera egiten ari den.
- Musika Eskolaren araudi organikoaren arabera, tasak ez ordaintzeak plaza galtzea ekarriko du. Hala ere, egiaztatu dugu ordaindu gabeko hainbat ordainagiri dituden familiei hurrengo urtean matrikulatzeko baimena ematen zaiela, zorra kitatu gabe. Udalak zorra erreklamatu die familia horiei, ikasle-postua galtzeko abisuarekin.

Aldeak ikusi ditugu familiei aplikatutako kuota batzuetan, batez ere aplikatutako hobarietan izandako akatsengatik.





Gure gomendioak:

- *Kostuen azterketa egiten jarraitzea, hura ezartzeko eta tasak eta prezio publikoak zerbitzuen kostuen arabera ezartzeko.*
- *Musika-eskolaren tarifak kudeatzeko prozedura hobetzea, ahal den neurrian prozesu mekanizatuak ezarriz, datuak eskuz sartzean akatsik gerta ez dadin.*

VI.5.7 Transferentziengatik diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatik eta kapital-transferentziengatik aitortutako eskubide garbiak 5,62 milioi eta 383.292 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, eta, guztira, diru-sarrera guztien ehuneko 41 izan ziren.

Aurreko urtearekiko datu konparatiboek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2019/2018
	2018	2019	
Transferentzia arruntak	5.130.969	5.616.877	9
Kapital-transferentziak	520.972	383.292	-26

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2019
Transferentzia arruntak	
Otik 3 urtera bitarteko haur-eskolarentzako dirulaguntza	334.502
Enplegu sozial babesturako dirulaguntza	232.028
Etxez etxeko laguntza-zerbitzurako dirulaguntza (mendekotasuna)	54.577
Kapital-transferentziak	
Kiroldegia iragazgaizteko obrarako dirulaguntza	96.541

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzen berrikuspena honetan datza: egiaztatzea udalaren aurrekontu-informazioa koherentea dela Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-informazioarekin, bai eta informazio horren euskarri diren administrazio-egintzekin eta udalak aurkeztutako justifikazioarekin ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera.





VI.5.8 Ondare bidezko diru-sarrerak

2019an, ondare bidezko diru-sarrerak 1,07 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko zazpi egin zuten.

Honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Kapituluko diru-sarrerak	Aldea (%) 2019/2018
Bankuetako kontu korronteen interesak	211	0	-65
Andacelay SLren dibidenduak	969.000	90,5	912
Hiri finken eta lokalen errentamendua	100.519	9,4	-23
Askotarikoak	1.387	0,1	-54

Igoerarik handiena Andacelay SLtik datozen dibidenduena da. Udalak enpresa publikoari eskatu dio Sarrigurengo haur-eskola berriaren obra finantzatzeko.

Hiriko eta tokiko finken errentamendu-partidaren lagin bat berrikusi dugu, eta egiaztatu dugu haien likidazioa eta bilketa aplikatu beharreko araudiaren arabera egiten direla.

VI.5.9 Inbertsio errealak besterentzea

2019an, inbertsio besterentzearen ondorioz udalak izandako diru-sarrerak 23.521 milioi eurokoak izan ziren. Ia guztiak Udalak jabetzaren ehuneko 40,74 duen (eta Nasuvinsak gainerakoa) lurzati baten salmentatik datoz.

Egindako berrikuspenetik egiaztatzen da espedientea, oro har, toki esparruan aurreikusitako ondare-araubidearen arabera izapidetu dela. Halaber, eragiketa horien zenbatekoa baliabide atxiki gisa jaso da diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian, eta ondasunari baja eman zaio udal inbentarioan.

VI.5.10 Hirigintza

Eguesibarko Udalak baliabide propioekin egiten ditu hirigintza-zereginak, Hirigintza Alorrari atxikiriko langile hauekin: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat, administrari bat eta administrari laguntzaile bat. Gainera, merkataritza-sozietate bat du, eta haren xedea, besteak beste, hirigintza-kudeaketa eta -sustapena da. Azkenik, Andacelay SLk hitzarmen bat sinatu du Iruñerriko ORVERen Hirigintza Aholkularitzako Zerbitzuarekin.

Ganbera honek 2015ean egindako txostenean, Udal Plan Orokorrari dagokionez, 1999an indarrean zegoenaren ordezkotako plan berri bat onartzea gomendatzen zen.

2018ko otsailean, udalak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin, plan berria egiteko. 2018ko azaroan, erredakzio-taldeari asistentzia-kontratua adjudikatu zitzaion, eta herritarrek parte hartzeko aurretiazko prozesuari ekin zitzaion. 2019ko maiatzeko hauteskundeak direla eta, prozesua berriro atzera-





tu da, eta udalak adierazi duenez, 2020ko azken hiruhilekorako Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Eredua (EMOT) izatea aurreikusten dute.

Udal Plan Orokorra egiteko prozesuarekin jarraitzea gomendatzen dugu, indarrean dagoena, zeina 1999koa baita, ordezteko.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta jaulkitzen da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Amaya Larraya Marco andrea, Eguesibarko Udaleko alkatea den aldetik (jakinarazpenetarako helbidea uda-lean bertan du), Kontuen Ganberaren aurrean agertu eta, zuzenbidean egokien den moduan,

ADIERAZTEN DU:

Jakinarazi egin digutela Eguesibarko Udalaren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Behin-behineko txostenean bertan emandako epearen barruan eta idazki honen bidez, honako hauek aurkezten dituela:

ALEGAZIOAK

Lehenbizikoa. - Txostenak dioenez, zerbitzu jakin batzuk enpresa publikoarekin zuzenean kudeatuta ematen dira, baina ez da hala gertatzen honako kasu hauetan:

- Gizarte zerbitzuak (salbu eta Familien Arretarako Zentroaren zerbitzuak halakotzat jotzen badira).

- Hirigintza (praktikan, ez da enpresa publiko batekin ematen, hargatik eragotzi gabe Hirigintza Aholkulari-tzako Zerbitzua –HAZ–Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoaren bidez emateko hitzarmena).

Bigarrena. - Txostenak honako hau dio:

IV.2 Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia. Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalak 141.674 euroko gastuak ordaindu ditu, isunak kudeatzeko kontratuaren gehieneko indarraldia gaindituta.

Egia esan, isunak kudeatzeko kontratua arautzen duen pleguak honako hau ezartzen zuen berariaz bigarren klausulan:

2.2. Kontratu honen xede diren trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloko salaketak eta zehapenak kudeatzeko eta Udalaren eskubide ekonomikoak kobratzeko eta likidatzeko laguntza-
ren iraupena LAU URTEKOA izango da, dagokion administrazio-kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Nola-
nahi ere, eta salaketen kudeaketari, salaketen likidazioaren kudeaketari eta betearazpen-aldiko eskubide ekonomi-
koen kudeaketari dagokienez, adjudikazio-hartzaileak jarraitu egingo du, kontratuak irauten duen lau urteak amai-
tzean, lau urteko aldi horretan hasitako salaketen behin betiko likidazioa egin arte.

Era berean, tokiko gobernu-batzarrak 2018-06-25ean hartutako erabakiaren bidez, kontratuaren lizitazio be-
rriaren espedientea onartu zen, eta honako hau erabaki zen berariaz:

... / ...

5.a- Vialine Gestión SLri honako hau jakinaraztea:

5. 1. Egungo obra-kontratua eta bide-segurtasunaren arloko laguntza teknikoaren kontratua 2018ko uztaile-
ren 5ean amaituko da, hargatik eragotzi gabe, plegu arau-emailearen 2.2 klausularen arabera, eta salaketen kudea-
ketari, salaketen likidazioaren kudeaketari eta betearazpen-aldiko eskubide ekonomikoaren kudeaketari dagokienez,
kontratu horiek jarraitzea, harik eta epe horretan hasitako espedienteen behin betiko likidazioa egin arte, eta erago-
tzi gabe, halaber, bien artean adostuta, agiri horiek entregatzeko aukera, adjudikazio-hartzaile berriak haiek kudea
ditzan.

... / ...

Horrek esan nahi du gastuak ez direla ordaindu kontratuaren indarraldia gaindituz, baizik eta kontratuaren
indarraldiaren eta gauzatzeko eta emateko baldintzen barruan.

Hirugarrena. - Txostenak honako hau dio:





Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta, onetsita, kontu hartuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Berdeguneak mantentzeko kontratuan ez da egiten (sic) administrazio klausula partikularren pleguan (aurrerantzean, AKPP) ezarritako exekuzio-baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena.
- Isunak kudeatzeko zerbitzua aurreko adjudikaziodunak eman du 2019ko maiatzera arte, 2018ko uztailean aurreikusitako luzapen guztiak agortu baditu ere. 2019an enpresa horri 141.674 euroko gastua aitortu zaio.

Bada, horri buruz hauxe da egia:

-Berdeguneak mantentzeko kontratuari dagokionez, enpresa adjudikazio-hartzaileak, lehenengo urteko azken ziurtagiria ordaindu aurretik, ez zuen hori betetzen zuela egiaztatzen zuen dokumentazioa aurkeztu, baina Udalak eskatu ondoren, horri buruzko informazioa bidali du.

-Isunak kudeatzeko zerbitzuari dagokionez, zerbitzu bera plegu arau-emailea gauzatzeko baldintzen arabera eman da.

Laugarrena. Txostenak honako hau dio:

Udalak haur-eskolan egindako inbertsioari dagokion 1,6 milioiko doikuntza positiboa egin du, beste administrazio batek egindako inbertsioa dela irizita. Horrela, lortutako emaitza positiboa da, 852.897 euroko finantziario-ahalmena lortu baitu. Hala ere, uste dugu inbertsio horrek ez dituela betetzen doikuntza hori aplikatzeko behar diren baldintzak, eta, ondorioz, 47.415 euro finantzatu behar direla.

Egia esan behar bada, txostenak ez du esaten inbertsio horrek zergatik ez dituen betetzen doikuntza aplikatzeko behar diren baldintzak; izan ere, kasu honetan bezala, Udalak Nafarroako Gobernuaren kontura egin zuen inbertsio hori, azken horri dagokiolako horretarako zenbateko ekonomikoaren % 100eko ekarpena egitea, 1998ko urriaren 30ean sinatutako Lankidetzak Akordioaren arabera.

BOSGARRENA.- Gastu-araua. Txostenak honako hau dio:

“Ez dugu diru-bilketaren gehikuntza iraunkortzat hartzen Toki Ogasunen Funtsetan gehikuntza”.

Egia esan, Eguesibarko Udala ez zaio ordaintzen ari formula aplikatuz gero legokioketena; izan ere, funtsetan zenbatekoa ez da nahikoa formula erakunde guztiei berdin aplikatzeko, berme-funtseta ere izan behar baitu.

Eguesibarko Udalaren kasuan, 21.000 biztanle baino gehiago dituenek, dagokiona baino 1.500.000 gutxiago jasotzen ari da, eta, horregatik, banaketan guztiontzako KPI + 1 egiten da, eta, horrez gain, ukitutako udalei soilik % 1 gehiago.

Horregatik, ez du zentzurik diru-sarrera estrukturala, errepikakorra eta beharrezkoa ez dela esateak Eguesko biztanleek eskatzen dituzten zerbitzuak eman ahal izateko, eta, horregatik, ezin dugula gastu-araua handitu.

Beste behin gertatu da ez dela kontuan hartzen haur-eskolan egindako inbertsioa, zeina Nafarroako Gobernuaren konturako inbertsioa baita.

Hori guztia dela-eta,

HONAKO HAU ESKATZEN DUGU:

Garaiz eta behar bezala aurkeztu denez, alegazio-idazki hau izapidetzeko onar dadila eta, edukiari erreparatuta, txostena alegazioetan adieraziaren arabera alda dadila.

Sarrigurenen, 2020ko abuztuaren 27an

Alkatea: Amaya Larraya Marco





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna

Eskerrak ematen dizkiogu Eguesibarko Udaleko alkateari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

1) Bigarren alegazioari dagokionez, gure ondorioak eta gomendioak errepikatzen ditugu, kontratua 2018ko uztailean amaitu zelako eta enpresak kontratua amaitu ondoren sortutako isunak kudeatzeko laguntza ere ematen jarraitu duelako.

2) Hirugarren alegazioari dagokionez, esan behar da udalak ondorengo justifikazioen bat aurkeztu badu ere, ez duela pleguan ezarritako guztia betetzen, eta berresten dugu pleguetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta jarraipena egiteko protokolorik ez dagoela.

3) Laugarren alegazioari dagokionez, ez da bidezkoa beste administrazio baten kontura egindako inbertsioagatiko doikuntza, Nafarroako Gobernuak ez baitio inbertsio horren gomendioa egin udalari, eta ez baitzaio aktiboa eskualdatu gomendioa egin duen administrazioari.

4) Bosgarren alegazioari dagokionez, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartze Orokorrak adierazten duen bezala, arau-aldaketen ondoriozko zerga-bilketaren igotera iraunkorrak baino ezin dira onartu.

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

